

# Ibarretxeren Plana euskararen aldetik

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,  
"TXILLARDEGI"

IDAIZLEA

1. Espainiako Konstituzioa (1978) indarrean dagoen, Baskongadetako hiritarrok gaztelania ezagutu behar dugu, eta erabiltzeko eskubidea dugu. (3. Art.)

*Ibarretxe Plan-ean, ordea, ez da inon honen arau simetrikoa agertzen. Alegia, eta berdintasunaren ohoretan, hau legezatu behar litzateke: «euskaldunek oro ezagutu behar dute euskara, baita erabiltzeko eskubidea izan ere».*

2. Horren ordez hau dugu: «Art. 8.1 - El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco, tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en Euskadi, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas». Gaztelania jakin behar dugu denok; euskara, berriz, ezagutzeko eskubidea dugu.

3. Formulazio hau (8.1), eta 1979. urte-

ko Gernikako Estatutuarena (6.1), ez dira «antzekoak» bakarrik; edo-ta «oso antzekoak», hortik esaten den bezala; identikoak baizik. Testu bera da.

4. Gernikako Estatutuaren eskutik, eta ondorio gisa, 1982ko Azaroaren 24ko Ley de Normalización del Uso del Euskera dago. Asko eta askotan, euskaltzaleok ongi dakigunez, Lege hau ez da bete. Batzuetan espainiar Gobernuia izan da debekatzaila. Baina beste hamaika aldiz Aginte Autonomikoak ukatu ditu gure hizkuntz eskubideak; euskararen erabilpena behin eta berriz militantzi ekingiza bihurtuz.

**Eraginkorragoa izan behar du Estatutu Berrirako testu horrek euskararen normalizazio prozesua azkartu nahi badugu**

5. Lege honen 8.3ak honela dio: «Los poderes públicos podrán hacer uso exclusivo del euskera para el ámbito de la Administración Local, cuando en razón de la determinación socio-lingüística del municipio, no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos». Madrilako Gobernuak inpugnatu egin zuen puntu hau seguruan. Eta geroztik legetik at daude euskara hutez ari diren Udalak.

6. 1991an sortutako U.E.M.A. delakoa (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea), hain zuzen ere 8.3 puntua gauzatzeko antolatua, legetik at dago sorreratik beretik. Mugimenduak indarra hartu zuen: 45 udal euskaldun Baskongadetan: 27 Gipuzkoan, 17 Bizkaian eta bat Araban. (Nafarroan beste zazpi daude, bide-nabar).

Hots, bi aldetatik jo dute UEMAREN aurka. Madrilak, espero zitekeenez, «porque discrimina a los españoles que no conocen el vascuence, ni tienen por qué conocerlo». Eta PNVak ere bai leku askotan, ulertu ezinezko arrazoinengatik, UEMA

krisian jarri arte (ikus egunotako prentsa, adibidez).

7. Galizian ez da hau gertatu. Hona hemen 3/1983 Legeak, bere 1. Artikuluan dioena: «O galego é la lingua propia de Galicia. Todos los galegos tienen o deber de coñecelo e o dreito de usalo».

8. Katalunian, bide bereti, joera bera nagusituko bide da Nou Estatut d'Autonomia delakoan. Barcelonako Unibertsitate Autonomoak eta Observatori de la Llengua Catalana instituzioek, 3.2 Artikulu hau proposatzen baitute: «Tots els catalans tenen el deure de conèixer el català».

Arrazoi aski, ene ustez, euskaltzaleok Ibarretxeren Planari ezezko emateko.

Bukatzeke, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua aspaldidanik esaten ari denarekin bat nator, alegia, eraginkorragoa izan behar duela Estatutu Berrirako testu horrek euskararen normalizazio prozesua azkartu nahi badugu. Gure hurrengo urteetako euskararen etorkizuna erabakitzen ari gara orain. Izan bezate hori kontuan gure arduradun politikoei.

## Zerbait irabazten bada, ez da ezer galtzen

JOSEBA GOÑI ALTZUETA  
HERRIA 2000 ELIZAKO KIDEA

**B**ihar, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak Ibarretxeren Plana onartzea edo ez eztabaidatu du. Eusko Jaurilaritzak SAREN baiezkotz bi boto beharko ditu, gutxienez, gehiengo absolutuaren babesa edukitzeko. Hala gertatuko balitz, Eusko Legebiltzarrek eta Eusko Jaurilaritzak ofizialki onartuko lukete Espainiako Estatuarekiko Arximikendu Askeko Estatutu berria. Hurrengo urratsak hauek izango lirateke: Estatuko Gobernuarekin negoziatzea eta Estatutu berria Kongresuan eta Senatuan onartu edo baztertea. Horrekin batera, galdeketa edo erreferenduma egingo litzateke.

Bestela, bihar SAK Plana babestuko ez balu, EAJk eta FAK hauteskunde kanpainen aurkeztuko lukete Plana, eta bi parlamentari gehiago lortzen saiaturko lirateke; hau da, gehiengo absolutua. Beraz, Batasuna kanpoin geratuko litzateke ofizialki.

Hortaz, bihar Estatutu berria onartzen ez bada, FAeko egoera politikoa zaituta jarraituko da: Hirukoak, Sozialista Abertzaleak taldeak, Aralarrek, PSOEek eta PPK baikoitzak bere aldetik jarraituko du, eta elkarren arteko aurkakotasuna gero eta handiagoa izango da. Estatutu berria onartuz gero, aldez, alderdi abertzaleen artean harremana eta elkar ulertzea badela eta PPren eta PSOEren arteko zatiketa gero eta nabarmenagoa dela esan nahiko du horrek. Estatutu berria onartzeak bestelako egoera ekarriko luke: Eusko Legebiltzarreko gehiengoak Estatuko Gobernuarekin hitz egin, hitzartu eta negoziatu beharko du demokratikoki erabaki dena.

Estatuaren jarraera dena dela ere, ez litzate

teke onura txikia izango herritarrek hainbat kontzeptuz jabetzea; Autodeterminazioa, etorkizuna erabakitze eskubideak, Botere Judizial propioak, herritar gutziet egindako kontsultak, Nafarroarekiko eta Iparraldearekiko harremanak, Alderdien Lege Propioak..., besteak beste. Izan ere, heldutasuna eta kontzientziaioa ekarriko lizkieke horrek herritarrei, Erabakitze Eskubidearen elementu subjektibo eta oinarritzakoa kontuan hartuta.

SAREN abstentzioarekin, abenduaren 20an Batzordean onartutakoari dagokionez, bi erreakzio garrantzitsu azpimarratu beharko lirateke:

Batekik, talde abertzaleen baseen onarpena —pozik zeuden—, eta nolabaiteko ixaropena Eusko Legebiltzarreko leheneko bozketa gainditu izanagatik. Esan dezakegu, inolako estatistika zorrotzik gabe, presoen senideek, kultur taldeetako ordezkariak eta hainbat herritar anonimok urrats horren garrantzia azpimarratu zutela.

Bestetik, berriz, Espainiako alderdi nazionalista gutzientz gaitzespen osoa eta orokorra, biltzea merezi duten hainbat esaldi eta adierazpenekin:

«Abenduaren 30ak Eusko Legebiltzarren historikoki zentzugabekeriarik handiena ekar diezaguke (...). Planak arrakasta edukiko du abertzale guztiak batzea lortzen badu», Manu Montero, *El País*.

«Batasunak Estatutua edo Euskal Herri-rako Konstituzioa onartzen badu, lehen zirikitu handia irekiko du Espainiako Konstituzioan», *Gaceta de los Negocios*.

«Egia da Batasunak segur aski Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ez duela babes hori emango. Baina horrek atzeratu bakarrik egingo du aurrerapausoa, hauxe baita datu erabakigarria: Euskal Herriko abertzale guztiak, ETA bame, prest daude Eus-

tuarekiko haustura amaiera arte eramateko. Edurne Uriarte, *Abc*.

«Euskal Herriko politikariek azkenaldian egindako hutsik handiena da», Egiguren.

«Horrek guztiak Espainiaren eta Euskal Herriaren arteko harremana, Espainiaren batasuna Nazio gisa haustera darama». Maria San Gil, *El Mundo*.

«Baliteke EAJren eta Batasunaren jarre-rak guztiz bat ez etortzea; bat egin dezake-te, ordea, horien artean ez baitago alde handirik». *El Mundo*-ko editoriala.

«Ibarretxeren Planaren aldekoak prest daude ekingiz bidez Euskadi Konstituzio Estatutik askatzeko». *El Correo*.

Espainiako Konstituzioaren aldekoen adierazpen horiek garrantzi historikoa ematen diote abenduaren 20an Eusko Legebiltzarreko Batzordean onartutakoari; batekik, horren edukiagatik; eta, bestetik, alderdi abertzaleen arteko elkatasuna suposatzeagatik.

Biharko Eusko Legebiltzarreko hitzordua erabakigarria izango da Euskal Herriaren etorkizunari. Honetaz jabetu behar dugu: Ibarretxeren Plana onartzen bada, Eusko Legebiltzarrek gehiengo osoarekin eta demokratikoki ordezkaturako ahoz bakararekin agertu ahal izango du Espainian, European eta Nazio Batuetan.

R. Diez Usabiagak esaten zuen bezala: «Egun horrek amaituta dagoen autonomia credu batek egoera politik berri baterako aldiaketa markatuko du; Euskal Herriko herritarrek bame eta kanpo harremanak zehaztu beharko dituzte, eta herrialde horren etorkizun politik eta instituzionala erabakitzeko eskubidea edukiko dute».

Egia esan, abenduaren 30ean oraindik ezezaguna, pozgarria, itxaropentsua den aldia has liteke; Euskal Herriaren historian guztiz berria den zerbait. Imajinatzen al di-

tuzte agintari politikoa presoan, mehatxatuen eta Espainiako edo Europako orga-noeikiko negoziatzeen inguruan eztabaidatzen, eta horiei konponbidea bilatzen?

Bihar errealtatea eta desadostasuna nagusitzen badira, aldez, aurrez aurre, zaituta eta beste aukera baten zain egingo gara, berriz ere.

Bukatzeke, dei bat egin nahi nieke buruzagi politikoi eta erakundeetako ordezkari-ri: herritarrek bilerak, konponbideak eta akordioak nahi dituzte. Beharrezkoa da itunak egitea, negoziatzea eta amore ematea. Ez dugu aurrera egingo, ez dugu konponbiderik aurkituko uste badugu besteak prozesuan huts egin duela, ez duela kontsultatu edo hura ez dela guk proposatutako helmuga iritsi. Miguel de Cervantesek behin eta berriz esaten zuen bezala: «Zerbait irabazten bada, ez da ezer galtzen».

Edo herri jakinduriak dioen legez: «Ez espero behin betiko garaipekin, garaipean partziala baizik».

Bihar erabaki hori hartzeko ardura dutenak honako galdera hauen inguruan gogoeta egitera gonbidatu nahi nituzke:

1. Zer espero duzu aurkari politikoa-riengandik? Ibarretxeren Plana onartzea eta alderdi abertzale guztiak elkar ulertzea nahi al duzu? Konturartzen al zara Euskal Herriarentzat onena aurkari politikoa gogobetzen duena dela?

2. 2004ko abenduaren Estatutu berria onartzeak edo bazterteak zertan hobetuko edo zailduko du gure mehatxatu, preso, erbestertuaren egoera, eta Estatuko Auzitegietan ditugun helegitea?

3. Akordioa bilatzeko beharrezko diren baliok zentzuzko lagun diezaiokete herritarri talde eta kultura jakin bateko kide sentitzen?